

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info



Ostirala, 2011ko martxoaren 4a. VIII. urtea. 2.185. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Plaza Zaharrean gaztetxoak izan ziren gehien gozatu zutenak, Tolosako Inauterien hasierarekin. REBAKA CALVO

HASI DA KOLOREEN JAI EROA

Azken urteetako Inauteri berantiarrenak Ostegun Gizenarekin batera lehertu dira; Tolosako Inauterizale Kuttuna San Bernardo aisialdi taldea izendatu dute

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak zuzenean eskaini zuen jaiaren hasierako txupinazoa; Inauterietako argazki eta bideoak 'tolosa.hitza.info'n' eongo dira 0-2-6



Inauterietako Argazki lehiaketa

- Saria: Denak taberna 4 pertsonentzako afaria
- Argazkiak nora bidali: argazkiak@tolosaldeko-hitza.info harpidedun kodea jarri behar da mezuan, harpidedun bakoitzak gehienez bi argazki bidali ditzake.
- Noiz bidali: Martxoaren 4tik martxoaren 9a bitartean.
- Sariduna: Martxoaren 15eko alean argitaratuko dugu.

Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan www.tolosa.hitza.info webgunean!



ITXAS BURU
STOERBOOTHGIL

Beragailua jangerlan
IREKITA ASTEAZKENETIK
IGANDE EGUARDIRARTE
BAKAILUA SALTZAN
ALDEZ AURRETIK ESKATUA

Donduena Baserria, 20130 Harriena
Tel: 943 536 579.



Juan Manuel Zaldua • Inauterizalea

«Inauteriak mila modutara bizi daitezke, milaka aurpegi ditu»

Maier Ugartemendia Tolosa

Inauteriak hasi dira, eta inauterizaleak jada prest daude inauteri giroan sartzeko. Juan Manuel Zalduak (Tolosa, 1955) inauterizale eta festazale bezala definitzen du bere burua. Urtero bezala, mozorroa prest du datozen egunetarako eta festazale on bat bezala, ez da aurtien Inauterietan egingo duen eguraldiaren beldur.

Zer da Inauterietan gehien gustatzen zaizuna?

Dena gustatzen zait. Inauterietako egun guztiek dute zerbaite berezia, niretzat behintzat. Ostegun Gizeneko adibidez badu bere grazia, hasiera delako. Jende askok lankideekin lotzen du eta badu bere berezitasuna. Parranda giro ederra egoten da. Larunbata izango da, agian, zozoena. Baina, badu bere grazia ere. Festa giroan sartu behar da eta giroan sartu zaitezke edozein egunetan, edozein gauzarekin. Inauteriek horixe dute, denetako aukera dagoela.

Ikusteko gozatzeko eta abar. Ez naiz gauza egun bat hautatzeko. Denok daukagu programaxko bat eginda, nahiz eta, Inauteria baden arauen kontrako zerbaite. Baina, denok daukagu programa bat eginda. Iganderako zerbaite daukagu prestatuta, astelehenerako beste zerbaite eta astearterako beste zerbaite.

Noiz hasi zineten aurtengo Inauteriak prestatzen?

Lehen esan bezala, programa bat daukagu eta gure kasuan astelehenean adibidez zerbaite berezia prestatu dugu, beste batzuekin antolatutako zerbaite. Nik parte hartu dudan lehenengo bilera lehengo astean izan zen, eta bultzatzaile nagusiek astebete lehenago egin zuten lehenengo bilera. Inauteriek denetarako aukera ematen dute. Ematen du aukera 3 hilabete lehenago lanean hasteko, eta oso ondo egiten dute. Beste batzuek bezperan hasten dira, eta hori da betidanik ezagutu dugun Inauteria. Batzuek berriz, alde



HITZA

aurretik gauzak ondo pentsatuta gauzak eta lan asko eginda, eta beste batzuk lan asko eginda. **Zer sentitzen duzu tolosarra eta inauterizalea izanda txupinazoa eta lehen txaranga hotsak entzutean?** Tolosar, Inauterizale eta festa gustatzen zaion norbait naiz. Eta

Inauteriak horien barruan sartzen den zerbaite da. Gorputza bakarrik mugitzen hasten da. Giro hori sortzen da, gorputza mugitzeko edo. Musikak eta giroak mugiarazten zaitu, hau guztia barrutik sortzen da. Gainera, Oste-gun Gizeneko txupinazo ondo-rengo hots horiek izaten dira lehenengoak. Eta, azken urteetan ere eguraldiak ez du gehiegi lagundu. Hala ere, mundu guztia sartzen da giroan.

Zertan inspiratzen zarete mozorroak prestatzerakoan?

Bakarren bati zerbaite bururatzen zaio eta beste batek beste zerbaite gehitzen du. Batzuetan errazenetik jotzen dugu eta nire uestez Inauteriek badute hori. Etxean daukazunarekin ea zerbaite egiteko gai zaren ikustea. Azkeneko urteetan dendetan eta, egindako gauzak saltzen dituzte. Horrek bidea errazten du. Baina, lehen eta askok oraindik lehenetik etxean dagoen zerbaite aprobetxatzen dute, beste modu batera jarri eta

horrela antolatu. Tolosan jende askok egiten du ganbara joan eta ea zer dagoen ikusi. Ezer ez badaukazu erosiko duzu, egingo duzu edo jostunari emango diozu. Hor ere aukera dago, jendeak denetatik egiten du. Zertan inspiratu? Zorionez edo zoritzarrez denetatik ikusten duzu. Globalizazioak ere badu bere eragina. Telebistak egunero bere dosia ematen digu eta zaila da ihes egitea. Eta saltzen diguten musika ere islatzen da. Inauterietan egunero janzen ez duzun zerbaite jantzi behar duzu, baina ez duzu bereziki ezer behar giroan sartzeko eta ondo pasatzeko. Inauteriak mila modutara bizi daitezke, askotari-ko aurpegiak ditu eta bakoitzak bere modura igaro ditzake.

Zer da urtero Inauterietan errepikatzen duzun eta falta ezin den gauza?

Azkeneko urteetan, adibidez Diana. Gaztetxoagoa nintzenezan ez nintzen Dianara joaten. Larunbatean gaua luzatu baduzu, oso zaila da hurrengo goizean Dianara puntual jaistea. Baina, azken urteetan Diana da gauza bat ia bete-behar bihurtu dena guretzat. Gainera, Diana bukaerarako haragi gisatua patatekin prestatzen dugu, ondoren indar berritzeko. Eta hau da, lehen esan dugun programa horretan inolabait urtero errepikatzen dugun zerbaite.



Mozorro festa herriz herri



Ibarrako Uzturpe Ikastolan, besteak beste, indiarrez mozorrotu ziren. Tolosako Samaniego eskolan buruhandekin jolastu zuten eta mozorro alaiak jantzi zituzten. HITZA



Anoetako Ikastolakoek ohiko jaialdia egin zuten asteazken arratsaldean. Albizturko eskolan (eskuineko bi argazkiak) sormena bultzatu asmoz etxetik eramandako mozorroak zintzilikatuta jarri eta horien artean aukeratu zuten ikasleek. Makillaje tailerra ere egin zuten. HITZA



Tolosako Laskorain eskolako Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzakoak gustura mozorrotu ziren. Eskuineko argazkian, Villabonako kiroldegian Fleming eskolakoak eta Jesusen Bihotza Ikastolakoak elkartu ziren jaialdia egiteko. HITZA



TOLOSALDEKO hitza

 ETA LEITZALDEKO

 bertako egunkaria

902-82 02 01

(Astelehena: 08:30-20:00)

Larunbetea: 09:00-13:00

www.tolosaldea.hitza.info

 eraman/bidaliz zure datuak:

Araba etorbidea 5 behea, atzea • 20400 Tolosa

egin zaitez harpidedun!



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iriarte

 jatebrea

Menu berezia: 33€ + edariak

- Arrain pastel entsalada
- Alkatofak plantan iberiko urdaiazpikoarekin
- Arroz saldatua otarrainxa eta txirrekin

Aukeratzeko:

 Legatza plantan barazkiekin

 Txerrikume erreka

Postrea:

 Gazta tarra magurdi-izozkiarekin

Tel.: 943 683 078 • BERROBI

Artisau Jogurtak



Mahala



◆ **Ostiral Mehea**

**INAUTERIEIAKO
 ESTARAILA**

- **11:30ean.** Ozerki Txistulari taldearen kalejira.
- **16:30ean.** Zeren plazan zeren-festa, Kabi-Alai txarangak alaituko du giroa. Ondoren, kalejira.
- **20:30ean.** Ostiral Mehe eguneko danborrada.
- **22:45ean.** Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia Leidor aretoan.

**TXOSNA
 GUNEA**

- **18:00.** Txosnen irekiera egingo dute.
- **21:00.** Txupinazoa bota eta gero, bertan Zagi sagardo/ardoa egiteko aukera izango da. Zuek arfaria guk ez dugu.
- **23:00.** Dolce Tangana eta Glaukoma Sound System talde tolosarrak kontzertu eskainiko dute herriaren aurrean.

Kabi Alai Elkarteok hamabi kanpaikada eta txapliguekin eman diote hasiera Ostegun Gizenari. Tolosarrak urte osoan zain egoten dira egun handia noiz iritsiko. Guztiek egon nahi izan dute Tolosako udaletxe aurrean.

Urte Berri On Tolosa



M. Ugartemendi - E. Maiz Tolosa

Tolosan jai giroan murgilduta dago atzo eguerdiaz geroztik. Ostegun Gizena europian hasiagatik, txupinazoaren tuesa errespetatu zuten eguraldiak. 2017ko Inauterietan hasiera emateko, 12.000etarako plaza leporaino bete zen. Nabaria zen jendearen aurpegietan festarako goztoa.

Urteroko ohiturari jarraituz, Kabi Alai Elkarteak kideek bota zuten pregoia eta txupinazoa, 12.000ak jo aurretik iritsi zen On Ostegun Gizen pertsonaia ere. Plaza guztia jende artetik gurutzatu eta vialdezeko balioa igo zen.

Kide guztiak elkartu eta baldakera alera ziren. Aurreko urtean krisia gora eta behera ibili ziren eta aurtengoa ere horrela datorrela esanez hasi zuten pregoia.

Guztira, tolosarrak urtea Inauterietan zain pasatzen dutenez, aurreko urte berria Inauterietan batera hasi dute. Hamabi kanpaikada eta txapliguekin urteari hasiera eman zioten. Eta «Gora» oihuaren ostean, iritsi zen jaiari hasiera ematen dion suaria.

Ovduantxe lehortu zen festa. Txaranga doinuak batera, jende guztia saltoa ikus zitezkeen Aste Zaharretako kaleetan.

Inauterietako Kuttuna
 Aurreko lehen aldiz Inauterietako Kuttuna izendatu dute eta pregoiaren bidez jakinarazi zuten noiz izan den lehena. Kasu honetan, Eskout San Bernardo Aizoladi Tolosari egokitu zaito. «Inauterietan alde egin duten ibilbide luzeagatik eta egun Astelelengan hitzaren dagan giroaren aitzindari eta bultzatzaile izan direlako».

Atzoko ajeak alde batera utzita, gaur ere, Ostiral Mehea ospatzeko kaleak atzerako dira tolosarrak. Inguruko herrietan ere, Inauterietan usaina nabari izaten da. Hori dela eta batil bat, eskolatan mosenroten dira haurrak eta gurasoekin batera zozzenetara joaten dira. Kaleratuak jarraituz.

Aurreko lehen aldiz, TOLOSARRAK NOBIETA LEITZALDEKO HITZA egunkoari, zuzenbidean eskaini zuen Txupinazoa. Argiak eta bideoak, www.tolosahitza.info web orrian daude ikusgai.

VISIODRIVE: BISTAK, ZIRRARA, SENTSazioak, IKUSI EZ DITUZUN KILOMETROAK.

IROVI, S.A. CITROËN KONZETSIONARIO OFIZIALA
INDUSTRI POLIGONOA Z/G. TEL.: 943 651 842 . ANOETA/TOLOSA

TELEFONIA MUGIKORRAK ALDATU BEHARRA DAUKA. HAS GAITZEN.

5 ZENT. / MIN. NOIZNAHL NORNAHRL BERTIL.

Estarak: 0,04. Delenari ezarri: 15. zerbitzu. Hileko gutxieneko kontsumoa: 6 €. Atza-kutxa doakoa da 2017/06/30 bitartean ondoren ordaineko modalitatean eta 5M€/min alda ematen dutenentzat. Zeharkako zerbitzu or daude sartuta.



Itzea Urkizu

Afalosteko txantxa artean sortu zen Ostiral Meheko danborrada, eta gaur iluntzean 28. aldiz irten-go dira kalera.

Noiz hasi zen Ostiral Meheko danborrada?

Aurten 28. urteurrena da, beraz, 1983an hasi ginen.

Duela urte batzuk ostiraleko danborrada egiteaz utzi eta Zaldunita Bezperakoan ateratzen hasi zineten, ezta?

Gu Ostiral Mehean ateratzen hasi ginen, baina zinegotzi batek esan zigun ostiraleko danborradatik Zaldunita Bezperakora pasatzeko, hemen emakumeok ere parte hartzea nahi zutelako. Gai honi buruz hitz egin genuen gure artean, desadostasun batzuekin, izan ere, batzuk konforme zeuden, baina beste batzuk ez hainbeste. Azkenean, larunbatean ateratzearekin ados zeuden emakumeak Zaldunita Bezperako danborradan parte hartu zuten, eta Ostiral Mehekoa desagertu egin zen. Duela hiru urte, 2009an, Ostiral Meheko emakumeen danborrada sortu zeneko 25. urteurrena izan zen, eta parte-hartzaileetako batzuek urtemuga ospatzeko berriz ere ostiralean danborrada antolatzea pentsatu genuen. Jendea berriz ere animatu egin zen danborradarako, eta atera egin ginen. Orain beraz, berriz Ostiral Meheko danborrada egiten dugu. Izan ere, orain ez da emakumezkoen danborrada bakarrik, mutil batzuek ere parte hartzen baitute. Jantzi guztiak berritu genituen, eta ostiral gaueko tradizio hori berreskuratu dugu.

Zaldunita Bezperakoan ere parte hartzen jarraitzen al duzue?

Bai, noski. Guk ez dugu sekula arazorik izan larunbateko danborradan ateratzearekin, baina horretaz gain, zergatik ez atera Ostiral Mehean ere? Ostiralean Arpegi taldearen emanaldiaz gain ezer



HITZA

Mila Gonzalez ◊ Danborradako partaidea

Ostiral Meheko danborradak Zaldunita Bezperakoarekin bat egin zuen orain urte batzuk, baina 2009az geroztik ostiral iluntzean kalez kale ibiltzen dira berriz ere.

«Zerbait falta zaio Zaldunita Bezperako danborradari»

gutxi antolatzen zela ikusi genuen, eta egitaraua nolabait indartzeko ostiraleko danborrada berriz antolatzea egokia iruditu zitzaigun.

Hasiera hartan, emakumezkoek soilik parte hartzen zuten danborradak ba al zuen aldarrikapenetik?

Garai hartan atera ginen gehienok Aurrera elkarteko bazkideen emazteak edo alabak ginen, eta Aurrerak Ostegun Gizenean egiten zuen bere danborrada. Behin, afari batean, barrez eta txantxetan bezala, guk gure danborrada egiteko esaten hasi zitzaizkigun,

azkenean ez genuela ezer antolatuko esanez, eta abar. Azkenean, hainbeste zirikatzearen ondorioz, danborrada antolatzen hasi ginen. Bestalde, aldarrikapen gisa ere balio izan zigun, emakumeok danborradan parte hartu nahi baikenuen.

Urtero jende bera ateratzen da?

Ba azken boladan gazte dezente animatu dira gurekin danborradan ateratzeko, eta oso gustura gaude. Aurretik parte hartzen zuen jendea ere ateratzen da, baina aurten ere gazte mordo atera da eta gehienek lehenengo aldia izango dute. Beraz, belaraldi berria ere badator.

Parte-hartzaileok ez duzue elkarterik edo antzekorik?

Ez, ez dugu ez elkarterik eta ez ezer. Aurrera elkarrekin laguntzen digu alde batetik, danborrak eta barrilak utziz. Bestalde, San Bernardo aisialdi taldeak lokala uzten digu danborrak eta barrilak bertan gordetzeko, eta La Jara elkarrekin afaria prestatzen digu. Beraz, herritar askoren laguntza izaten dugu.

Eta entseguak non egiten dituzue?

Zaldunita Bezperako danborradakoekin batera egiten ditugu Kultur Etxean, eta gero gu beranduagora arte geratzen gara, Ostiral Meheko danborradan abesti desberdin batzuk jotzen ditugulako.

Beraz, ostiraleko danborradako errepertorioa desberdina da.

Abesti guztiak Inauterietakoak izaten dira, baina horiez gain guk Ostiral Meheko danborradarako Juanito Colmenerok espreski egin zigun kantu bat jotzen dugu, eta Ostegun Gizenekoa ere bai.

Duela urte batzuk Inauterietako erregina Galtzaundik ordezkatu zuen, eta polemika sortu zen herritarren artean. Iaz berriz, danborradaren ordutegia aldatu zuten. Zer egingo zenuke danborradari bultzada berri bat emateko?

Niri erreginarena ondo iruditzen zitzaidan, aurka behintzat ez nengoen. Danborrada berreskuratzeko ez dakit zer egingo nukeen. Iaz arratsaldean atera ginen, eta ondo egon zen, baina hala ere zerbait falta da. Zer ote den? Ez dakit. Baina beharbada erregina berreskuratu beharko da.



Hilberria



MANUEL ODRIOZOLA OTAEGI

JAUNA

Martxoaren 2an hil zen, 79 urte zituela.

Eitzaok eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Golan bego -

Bere emaztea: Agustina Iruretagoiena; seme-alabak: Ana Jose (†), Manu eta Helena Nuin, Ane eta Jokin Diaz, Ikerne eta Asier Landa; bilobak: Amaur, Ander, Garazi, Manex eta Maddi; anai-arrebak; ezkon anai-arrebak; osaba-izebak; ilobak; lehengusak eta gainerako ahaldeak.

Haren animaren alde otzituz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzetzela GAUR OSTIRALA arratsaldeko SEIETAN ANOETAKO SAN JOAN BATAIATZAILLEA parroki elizan, GORPUBERTAN DE LA EGINGO den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

ANOETAN, 2011ko martxoaren 4a

Helbidea: Herriko plaza, 1.

Oharra: Gorputz bella Tolosako FUNERARIA VASCONGADA tenatarion egongo da, OSTIRALA arratsaldeko 17:15ak area. Errosario Santua 17:45ean errezatuko da.



MANUEL ODRIOZOLA OTAEGI

JAUNA



Anoetako Udaleko alkate ohia

ANOETAN, 2011ko martxoaren 4a

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neuriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horietan lider garenaz, aukera ekonomiko gutxieta egokitzten diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermarekin.

Berreskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena emazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Ibarrako sokatira taldeak goma gainera igoko dira berriro ere

600 eta 500 kilotan Euskal Herriko Txapelketaren jardunaldi berri bat jokatuko da bihar

Asier Imaz Ibarra

Euskal Herriko Sokatira Txapelketa azken hilabetean sartu da. Bihar, larunbata, ibartarrak Elizondora joango dira. Gizonezkoak 600 kilotan lehiatuko dira eta emakumezkoak 500ekoan. Tiral-diak 18:00etan hasiko dira.

600 kilotan lehen jardunaldia otsailaren 19an jokatu zen. Sokarrik irabazi zuen eta Ibarra bosgarren sailkatu zen. Bigarren jardunaldi honetatik irtengo dira sei finalistak. Finala hilaren 12an jokatuko da Gernikan.

500 kilokoan lehen jardunaldia jokatuko da Elizondoko pilotalekuan. Ibarrakoek Sakana eta Badaiozko nesken auka tirako dute. Hiru talde hauen artean jokatuko da txapelketa eta guztira hirur jardunaldi izango ditu. Bigarrena hilaren 12koa izango da eta azkena, hilaren 19an Arrigorriaraino jokatuko dutena.

→ Laburrak

Sorturen aldeko elkarretaratzeak

POLITIKA » Espainiako gobernuak Sortu alderdia epaitegietara eraman du. Tolosaldeko ezker abertzaletik azaldu dute-ne, erabaki honen aurkako elkarretaratzeak egingo dira «herri guztietan», ohiko leku eta orduetan. Amezketan adibidez, 19:30ean elkartuko dira Abaltzisketako bidegurutzean.

Etxeretek elkarretaratzea egingo du bihar

TOLOSA » Euskal preso eta iheslarien senideak elkartzen dituen elkarteak, Etxeretek, elkarretaratzea egingo du Zal-

dunita Bezperan, bihar, Tolosaldeko Triangulua plazan, 19:30etik 20:00etara. Eskualde guztian zabaldu dute deialdia eta herriar guztiak gonbidatu dituzte preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekimenera.

Ekomuseoa hilabeteko lehen igandean zabalik

LARRAUL » Urteko hilabete guztietako lehen igandeetan Ekomuseoa zabalik egongo da, 11:00etatik 14:00etara. Larraulgo museoak, eliza, errota eta abar ikusteko aukera paregabea edukiko du bertara gerturatzeko denak, Ekomuseotik sortu dituzten ekintzekin batera. Bertatik, eskualdeko herritar guztiak gonbidatu dituzte Larraulera. Informazio gehiagorako telefono bat jarri dute, 688 80 36 08a, hain zuzen ere.

Poltsikoko Antzerki Lehiaketan parte hartzeko aukera zabalik

A. Imaz Aduna

Asvinenea Elkarte Kulturalak, arte eszenikoaren laborategi eta sustatzaileak, V. Poltsikoko Antzerki Piezen Lehiaketarako deialdia egin du. Lehiakideek hilaren 18a baino lehen eman beharko dute izena, *poltsiko.lehiaketa@gmail.com* helbidean. Parte-hartzaileek 30 euro ordaindu beharko dute seinale gisara, parte-hartzea amaitutakoan bueltatuko zaielarik. Informazio gehiagorako *www.asvinenea.com* helbidean aurkituko dute interesatuek.

tolosaldeko hitza . iragarkilaburrak.com

Antzerkiaren erabilketarako 15.000ak arte jokatuko lehiaketa sorki arduratuko dira. IRAGARKIAK: IRATZEDU: www.tolosaldeko-hitza.iragarkilaburrak.com / 943-65 56 / Zehazkiak zabalduko dira.

Lana/ingurugazikoak

LARREKARIAN

IBARRASQUINTZA

Vilabona, Ingelesirio klasekin emaitzadun Gopuzkoan sailan, Tafelak edo bakarka. Mola ezber-

dirak, lakasle tituladuna. Telefonoa 664-16 02 68 eta posta elektronikoa confianza56@hotmail.com

Leku hau zure iragarkiarekin zain dago

ARAMBURU Euzen administrazioa Higitzaileen lankidetzak

943-65 17 13 / 664-37 25 60

www.aramburunet.net

SALGAIA

- **Etxehizbitza.** Amazabal kalean, igogailuarekin, Leitzan, Nafarroa.
- **Lokala.** Forum kalean, Tolosan.
- **Garaje itxiak eta irekiak.** Tolosa, Ibarra eta Irujan.

ALOKATZERO

- **Etxeak.** San Frantzisko kalean, Paper kalean, Hermeros kalean eta Agintari kalean, Tolosan.
- **Garajeak.** Larramendin, Tolosan.
- **Txokoa.** Tximinia, komuna, oho bikoitza, ordezko ohea eta terraza, Baratzarren.
- **Lokala** buru azaroen, Tolosan.

www.inmosalbide.com

SALBIDE

Higitzaileen zerbitzuak

Aia. Erakuntza berria, 3 logela, 2 banagela eta 127 m²ko terraza. 46.588.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onen 28.500.000 pezeta.

Getaria. Herriaren kalera, 3 logela eta 2 banagelako etxebizitza. Trasterlekuarekin. Egoera onen 41.000.000 pezeta.

Zarauitz. Langako plaza (Salbider), 2 logela eta banagela bat. Guztiz berria. 45.000.000 pezeta.

Zarauitz. Vista Alegre, 3 logela, banagela eta aseoa. Terraza handia hegalders. Bista ederrak. 50.000.000 pezeta.

Zarauitz. Erdialdean, 2 logelako atikoa erabat berria. Igogailua eta gata. 51.300.000 pezeta.

Zarauitz. 4 pisua igogailuk gabeko 2 logela berria behara dago. 35.000.000 pezeta.

Zestoa. Erdialdean, Eze bilamilar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

Bokala kalea, 6 • 20800 Zarauitz
Tel: 943-01 07 00 • Fax: 665-71 85 76

Etxebila Higitzaileen

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

ALORRIAN

AMARA ZAHARRA Apartamentu oso polita. Kanpora 775 €

AMARA 2 logela, sukaltzea, egongela, 2 banagela. Baitako. 900 €

GIROS Apartamentu oso polita. Logela-egongela-sukaltzea. Banagela. 970 €

SALMENTAN

MARTUTENE 2 logela, sukaltzea, egongela, banagela. Baitako. Kanpora. Parkean. 28.000.000

ERREMENTIA Erdialdean 2 logela, sukaltzea, egongela, banagela. Terraza. 26.900.000

PURRI SAN JUAN 2 logela, sukaltzea, egongela, banagela. Baitako. 23.600.000

AMARA Altua Baitako berrak. 3 logela, sukaltzea, egongela, banagela. Terraza. 48.700.000

AMARA 3 logela, sukaltzea, egongela, banagela. Altua. Baitako. 44.000.000

AMARA 3 logela, sukaltzea, egongela, banagela. Terraza. 46.200.000

AMARA Oso polita. Logela, sukaltzea, egongela, banagela. Terraza. 44.700.000

GIROS Apartamentu oso polita. Logela-egongela-sukaltzea. Banagela. 28.000.000

AETE Duplex oso polita. 2 logela, 2 egongela, sukaltzea, banagela. Igogailua. 47.900.000

ERDIALDEAN Erdialdean. Logela, sukaltzea, egongela, banagela. Baitako. 43.500.000

INTXARRONDIO 2 logela, sukaltzea, banagela. Baita polita. Baitako. 37.500.000

ESNA Kanporako Asteia. Marra. Igogailua. 2 logela, sukaltzea, banagela. Igogailua. 47.900.000

ANTIGAO Berrak. Berrak. Berrak. Terraza. Ganapas. Trasterlekuak. Poltsa.

ANTIGAO Marra. 2 logela, egongela, sukaltzea, banagela. Sukaltzea. Igogailua. 47.900.000

HERERIA 2 logela, sukaltzea, egongela, banagela. Kanpora. Baitako. 38.200.000

LARRATEDO Altua. Baitako. 2 logela, sukaltzea, egongela, banagela. Igogailua. 37.500.000

ALZA 2 logela, egongela, sukaltzea, banagela. Trasterlekuak. Igogailua. 34.500.000

ALZA 108m². 4 logela, sukaltzea, egongela, 2 banagela. 30m²ko terraza. 46.500.000

SELRIBES 102m². 3 logela, sukaltzea, egongela, banagela. Terraza. Jantokia. Parkean. 43.500.000

LEZO Erdialdean berrak. 2 eta 3 logelak dituen. Terraza. Ganapas. 280.000 € iza gara.

www.etxebila.net
Felipe III. atoka. 4 • DONOSTIA

INMOKOSTA INMOBILIARIA

S A I D U

GETARIA. Erdialdean. Zeharri erabilertua. 2 logela, sukaltzea, egongela, banagela, baitako. Baitako. Terraza kanporako begira eta egongelak. 204.545 euro (34 milioi).

ZARAUITZ. ZIGORDEAN kalera. 2 logela, egongela, sukaltzea, banagela eta baitako. 276.479 euro (46 milioi).

ZARAUITZ. VISTA ALLEGRE. 3 logela, sukaltzea, banagela, baitako. 211.499 euro (48,5 milioi).

ZARAUITZ. OITILLA. 2 logela, sukaltzea, egongela, banagela, baitako. Terraza kanporako. Aitzakiarik gabeko.

ZARAUITZ. INTXARRONDIO. 2 logela, sukaltzea, banagela, baitako. 2 banagela, baitako. Trasterlekuak. Trasterlekuak. Aitzakiarik gabeko.

ZARAUITZ. 1. FERROAN. 3 logela, sukaltzea, banagela, baitako. Terraza kanporako. 2 banagela, baitako. Ganapas. Aurreko azaroen berrak.

ZARAUITZ. ERDIALDEAN. 100 m². 3 eta 4 logela, sukaltzea, banagela. 396.660 euro (65 milioi).

GIROA. TRAKINTZA BERRIA. 2 logela, sukaltzea, banagela, baitako. Terraza, dena kanporako begira eta egongelak. Ganapas eta trasterlekuak.

GIROA. Familia hularazeko oso onargarria. 3 solairu. 130m² eta auzoa. Terraza eta terraza. Trasterlekuak. Aitzakiarik gabeko.

ZESTOA 3 logela, sukaltzea, banagela, baitako. Trasterlekuak. Igogailua. 208.550 euro

GARAJE SAIAMENTA. MENDIALDEA. GARAJE ITXIA. LERU BAT.

9 4 3 - 8 3 5 5 1 8

www.inmokosta.com
Orape. 20 - behea • 20800 Zarauitz

zaldibia bada zortedunik



3 logelako etxebizitza berria eta bostetakoan 205.000 euroko bukitu
2 logelako atikoa bostetakoan 160.000 euroko bukitu

inguruen situazioa eta onargarria



Hirusta
inmobiliar • Higitzailea



GCE
grupos eibar

lazkao HEMEN BILI NAHI DU!



L-100m²ko etxebizitza 130.000 euroko bukitu
100m²ko etxebizitza 125.000 euroko bukitu

10.000m²ko, 100m²ko eta 75m²koak dituen bukituak.



Toki Eder
EDIFICIO • ERAKUNTZA

943 31 66 11
620 111 271

www.gnuposibar.com

VIA 600 Higitzaileen Inmobiliaria



13°
6°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	15°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Arnezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Gora eta behera



AMAROTZEKO MARKESINA

HITZAn orain dela aste batzuk amarotzarren kexa bat jasoz bertan dagoen autobus markesinaren inguruko albistea argitaratu genuen. Udalak herriko hainbat markesinak aldatu zituen, baina ez Amarotzen, geltokirik jendetsuenean, hain zuten. Auzotarrek askotan eskatu

izan dute markesina jartzeko eta erantzunik jasotzen ez dutenez eurek egin zuten markesina azkenean. Udaleko arduradunek, inauterietarako berria izango zutela agindu zuten, baina atzokoan oraindik auzotarrek egindako markesina zegen. HITZA

GIRO ONA ZEZEN-PLAZAN

Urteroko moduan jende asko bildu zen atzoko Ostegun Gizean zezen-plazan. Txarangen atzetik jende ugari sartu zen barrura eta ikusleak dantzan jarri zituzten. Eskuak gora, urratsak aurrera eta atzera eta atseden

hartzeko aukera gutxi. Aldarrikapenek ere jaiarekin bat egin zuten eta zezen-plaza hamaika kolorez jantzirik gelditu zen. Giro ederrean denek gozatzeko aukera eduki zuten Tolosako Inauterien lehen egunean. HITZA



Agenda

ANTZERKIA

■ **Villabona.** Gaur 22:30ean *Xentimorik Gabe* antzezlanaren Gurea antzokian. Sarrera 8 euro.

DEIALDIAK

- **Aduna.** Asvineneak antolatzen duen V. Poltsiko Lehiaketan izena emateko epea martxoaren 18an amaituko da. Edozein kontsultarako deitu 665 738 081 telefonora edota idatzi honako helbide honetara: poltsiko.lehiaketa@gmail.com.
- **Larraul.** Ekomuseoa zabalik egongo da igandean, hilekolehen igande guztietan bezala 11:00etatik 14:00etara.

Garraio publikoa

RENFE

■ **Ohiko ordutegia** izango du.

TSST

■ **Ohiko ordutegia** izango du. Gaurkoan ez da gaueko zerbitzurik izango.

TOLOSALDEA BUS

■ **Ohiko ordutegia** izango du. Gaurkoan ez da gaueko zerbitzurik izango.

HIRIBUSA

■ Eguneko zerbitzua izango da, ohiko ibilbidearekin. Azken bi- daia 22:00etan izango da.

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.





Muñazabal
MUEBLES - ALTZARIAK

San Ignacio, 2 • 20400 TOLOSA
tel/fax : 943 65 17 61



logelak • liburutegiak • sofak • koltxoak • neurriko altzariak • sarrerak • sukaldeak • dendatako altzariak • etxebizitza reformak • proiektuak ...